



ZA
BAI
TZEN

DOKUMENTAZIO
ZENTROA
TX 10108



LEKU ALDAKETA LEHIAKETA BERRIRAKO DEKRETUAREN KRITIKA

Orain arteko sistema zahartu eta desfasatua hezkuntz eta juridikoki ezin mantendurik, PSOeren gobernuak, leku aldaketa lehiaketarako 89/895 dekretuaren bitartez, razionalizatu eta gaurkotu nahi izan du egoera hau, besteak beste, datorren Hezkuntz Erreforma, LODE eta Funtzio Publikorako 84/30 Legeari egokituz (lanpostuen katalogoa, espezialitateak...)

Baina dekretu horretan, beste helburu batzu ere bideratzen dira:

- **Estatu osorako lehiaketa sistema bakarra eta uniformatua ezartzen da**, zentralismoa areagotu eta finkatuz. Arestian aipaturiko Estatuko Hezkuntz eta Funtzio Publikorako lege bateratzaileak (Hego Euskal Herria zatikatzen dutenak) dira dekretuaren oinarriak, baita honen garapenatarako ere.

Hego Euskal Herriari dagokionez, eskola eta ikastolen arteko baterakuntzaren fruitua izan behar den Eskola Publiko Berria **gutziz** baldintzatzen du, ikastetxeetako egituraketa eratzen dutelako eta Madrilgo BOEtik aplikapen zuzena besterik egiten ez duelako ("espezifiko"en espezialitatea eta arautzeko ahalmena baino ez da uzten).

Hemengo errealitateari, bada, uko egiten dio eta Herri hau eraikitzeke behar den eskolako berezko irakaslegoa eta honen euskalduntzeko ahalbidea, berriz ere, errefusatu eta baldintzatu egiten du Hego Euskal Herriko edozein lege burutzerakoan.


- **Binoldaketaren arriskua igertzen da**. Berregituraketaren izenean, Administrazioak lehiaketa sistema berri honetaz eta lanpostuetarako katalogoaren garapenaz baliatu nahi izango du lanpostuak murrizteko.

Orain arte eraman duen politika ekonomizista kontutan harturik, plaza organiko eta funtzionalen arteko desfasea ikastetxeetako lanpostuen kopurua behetik "ajustea" eginez konpondu nahi izango du, kalitatezko irakaskuntzaren kaltetan eta funtzionari ez direnen lan egoera txarrak dirauela.

- . **Ikastetxeen autonomia ukatu egiten du.** Dekretuak ez ditu ikastetxeen beharrak kontutan hartzen, ezta ikastetxeak berak parte hartzeko duen eskubidea ere, bai bere lanpostuak definitzerakoan bai lanpostuen probisiorako baremoan. (Gure eritziz, balorapen hau osagarri bat izango litzateke aintzintasunari eta azken lanpostuan iragandako urteei dagozkien berezko puntuazioan).

Hemen esan behar da Nafarroako Udalei zegozkien proposamen-eskubidea ere aldarazi dutela Dekretu Foral baten bidez, Estatuko sistema bateratzailearen mesedetan.

- . **Egoera bereziak mantentzen dira.** Zailtasun bereziko lanpostuek eta lanpostu bereziek lehiaketa edota puntuazio berezia dute, "lagunen arteko" konponketak eta zerbitzualdien instituzionalizatzeari bidea zabaltzen.
- . Administrazioak bakarrik buruturiko ikastaro eta titulazioen onarpena ("meritokrazia ofizialista"), lehiaketan puntuazio gutxiago duten behin behineko irakasleekiko diskriminazioa, baita funtzionarioak ez direnentzat ere, etabar.



DEKRETOAREN ZENBAIT PUNTUREN LABURPENA

Leku aldaketen lehiaketan, ikastetxe transferitu zein estataleko Eskolaurre, Heziketa Berezia eta OHoko lanpostuak bete ahal izango dira.

Espezialitateak

- . Heziketa Berezia
- . Eskolaurrea
- . OHoko Hasera eta Erdi Zikloa
- . OHoko Filologia (Euskara, Gaztelania eta beste hizkuntzak)
- . OHoko Matematika eta Natura
- . OHoko Gizarte Zientziak
- . OHoko Gorputz Heziketa

Aldiak

LEHENENGO ALDIA:

- . Eskualdean Espezialitatea. Nahien arabera, norberak dituen haina espezialitate eta eskualdeetan konkurtsatu ahal izango du, lanpostua batean bakarrik lortuz.

Puntuaketa egun ari den espezialitatean, baremoaren arabera.

BIGARREN ALDIA:

- . Lehen aldiko espezialitatearekin ikastetxea aukeratuko da. Eskualdeko behin betikoek ere konkurtsuan parte har dezakete.

Deialdiak

Lehen aldia atera aurretik, lanpostuen zerrendak eskualdeka agertuko dira: herri, ikastetxe eta espezialitateak adieraziz.

Lanpostuak

LEHENENGO ALDIA:

- . Deialdia ateratzen den urteko, abenduaren 31 arte sortuak.
- . Jubilazio behartuaren ondorioz aurreikusitakoak.
- . Behin betiko egonik, adskribapena egitean aurreikusitako espezialitateak gabe gelditu zirenezako gorder gelditu zirenak ez beste guztiak.

BIGARREN ALDIA:

- . Maiatzaren 31 arte sortzen direnak ere sartuko dira.

Lehen aldian izendaturiko destinoari utz egin diezaioke, baina ez behin betikoari.

Parte hartzera beharturik daudenek ezin diezaiokete utz egin.

Baremoak

- . Behin betiko egoeran etengabe daraman denbora. (Ikus koadroa) Izaera singularrekoek era berdinean puntuatzen dute.
- . OHoko funtzionari bezala, aktiboan eramandako urteak. Urteko puntu bana. Interinoek ez dute punturik.
- . Behin behineko egoeran eramandako denbora. Urteko puntu bana.
- . Administrazioak eraturiko espezializaziorako eta hobetzeko ikastaldiak. Puntu bi gehienez.
- . Titulazio akademikoak. Puntu bi gehienez.

Gaitasuna edo Habilitazioa

- . 67 aurreko ikasketa plana burutu zuten irakasleek, eta 70-71 ikasturtearen ondoren, espezialitatea hiru urte jarraian edo bost urte "alternoa" jardun dutenek, behin betirako aukeratu beharko dute espezialitate hauen artean: Filologia (Gazt.), Matematika eta Natur edo Giza Zientziak.
- . 67 planako lehenengo bederatzi promoziokoek eska dezakete heuren behin betiko "habilitazioa" Filologian (Gaztelania eta Hizkuntz Berria), Matematikan eta Natura edo Giza Zientzietan.

Eskubide bereziak

KONKURRENTZIA

Irakasle talde batek, eskualde berberara destinoa eskatzeko duten eskubidea, konkurrekide guztiek lanpostua izateaz baldintzatua.

Lehenengo aldian bakarrik erabil daiteke, konkurrente kopurua gehienez 4koa izanik.

Urteak	Behin betiko lanpostua	Lanpostu berezia
1,2,3	1 puntu (urt.)	1,5 puntu (urt.)
4	2 puntu	3,- puntu
5	3 puntu	4,5 puntu
6 - 10	4 puntu (urt.)	6,- puntu (urt.)
11...	2 puntu (urt.)	3,- puntu (urt.)

DEKRETUAREN GARAPENAREN AURREAN

Dekretu honen "egokitze" funtzioa aipatu dugu hasieran, baina beraren garapenaren aurrean aspektu bi izan behar ditugu kontutan: negoziazio prozesua eta beronen ardatzak.

. Negoziazio prozesua

Dekretu zentralista lez salatu dugu eta bere garapena berdin. Ez dugu uste kasualitatea denik Hegoaldean prozesua guztiz atzeratuta egotea. Madrilen negoziatzen ari direnaren zain daudela ematen du, gero hemen arautu eta gauzatzeko. Nafarroan zenbait bilera egin dira, baina EILAS eta LAB sindikatuak baztertzeko egindako ahaleginak nabariak dira, negoziazioa "comisión de mediación" delakoaren bitartez bideratzeko.

Baskongadetan, aldiz, Administrazioak ez du gai horretaz ezer planteatu oraindik, baina UGT, CCOO eta ELA sindikatu-ekin "ixilpeko" negoziazioetan daudela susma dezakegu.

. Negoziazioaren ardatzak

Irakasleen egoera laborala, euskalduntze prozesua eta kalitatezko irakaskuntzari begira lehiaketa honek duen eragin zuzena kontutan hartuz, LABek negoziazio prozesua zabaltzea exijitzen dio Administrazioari eta ikastetxeetan eztabaida egitea, proposamen zehatzak eginez, hurrengo puntuetaz:

GAITASUNA

Administrazioak irakasleen gaitasuna frogatzeko erizpide desberdinak erabiltzen ditu:

- 67ko planakoentzat "esperimentzia" onartzen da eta 71ko plan barruan sartzen direnentzat erizpide berberak ez du balio. Gaurtik ikusita, era antzekoan baloratu beharko lituzkete biak.
- Nahi izan ezker, beste espezialitate batetan gaitasuna lortzeko birziklapenerako aukera ziurtatu beharko litzateke kolektibo desberdinentzat (behin behiñekoak, interin-ak...)

- Beti ere, eta euskararekiko kasuetan bereziki, oinarritzko titulazioaren jabe izanik.

LURRALDEAREN BANAKETA

LABen ustez, zenbait erizpide kontutan hartu beharko lirateke langileen egonkortasuna ziurtatzeko, euskalduntze prozesua bideratzeko eta kalitatezko hezkuntz sistema bultzatzeko:

- Hezkuntz eskualdearen egoera linguistikoa
- Egoera sozio-ekonomikoa
- Populazioaren banaketa eta hazkunde prozesua
- Eskualdeko zabalera, garraioa...

LANPOSTUEN KATALOGOA

Lanpostuen katalogoaren finkapena* planifikazio egoki batean oinarrituta egon beharko luke.

LABen ustetan, gaurko egoera kontutan hartuz gutxienezko baldintza hauek ziurtatu behar dira:

- Administrazioaren joerari aurre eginez, erizpide ekonomizista eta langileen kopurua murriztearen aldekoa, ikastetxeetako benetako beharrak zeintzu diren agertu behar ditugu eta hortik abiatu. Erizpide gisa, irakasle/ratioa 1,5a izatea defendatu.
- Honekin batera, ikastetxeak autonomia nahikoa izan beharko luke irakaslego mota eta beraren antolaketa pedagogikoa egiteko.
- Euskalduntzearen egoera kontutan hartuz, euskal ereduetan irakaslego osoa euskalduna izatea ziurtatu eta perfil elebiduna defendatu.

LABek bi mailatan planteatzen du irakaslegoaren parte hartzea prozesu honetan:

- . **IKASTETXEETAN** gai honetaz eztabaida sortzea, ikastetxeen egoera kontutan hartuz, proposamenak eginez.
- . **Sindikatu guztien** parte hartzea negoziazio prozesuan, irakaslego osoaren ordezkapena ziurta dadin.

Maila honetan, LABek Administrazio biei exijitzen die gai honetaz negoziatzen hastea, Nafarroan Pertsonalگو Batzordearen bitartez eta Baskongadetan Mahai Sektoriala bilduz.

L.A.B. en ULEGOAK

LOCALES DE L.A.B.

BIZKAIA

BULEGO PROBINTZIALA

BILBO	Astarloa, 6-4°	4249160
BASAUARI	Marqués de Estella, 3-entrep.	4498121
GERNIKA	Iparragirre, 44 bajo	6853941
BARAKALDO	Aldapa, nº 22	4385029
ERANDIO	Plz. San Agustín, 6-entrep.	4670156
SONDIKA	Justo Agulía nº 5-1°	4533997
DURANGO	Intxaurrondo, 2	6818509

NAFARROA

BULEGO PROBINTZIALA

IRUÑEA	Nueva, 2-3°	221130
LIZARRA	Plaza Santiago	550833
ALTSASU	Auzokoa, 2-4° A	
BERA BIDASOA	Laguia, 15-1°	
ETXARRI	Larrañeta, 22-2° D	570530

GIPUZKOA

BULEGO PROBINTZIALA	Paseo de Zorroaga, 7-entrep.	464733
IRUN	c/ Urantz, 33-1° B	624714
ORERETA	San Sebastián, 6-1° A	514062
HERNANI	Nafarroa, 23 bajo	556717
LASARTE	Mayor, 37 bis	370997
ANDOAIN	Nueva, 46 bajo	594231
TOLOSA	Zumalakarregi, 1 bajo	673024
BEASAIN	Juan XXIII, 2 Entrep.	881445
LEGAZPIA	Aitzgorri, letra A-1°	730383
EIBAR	Bidebarrieta, 46-bajo	712199
ELGOIBAR	San Ignacio, 1 bajo	741028
ARRASATE	Plaza Iparragirre, 4-1°	797408
BERGARA	Mastzerreka, 6 bajo	
AZKOITIA	Kale Nagusia, 29-3° dcha.	814265

ARABA

BULEGO PROBINTZIALA

GASTEIZ	c/ Gorbea, 2-1° C	224619
LAUDIO	Nerviñ, 2	6722714